



# BABARRUNAK EREITEN IKASTEKO GIDA KALEAN

Tolosako Babarrunaren Elkartek babarruna nola landatu behar den azaltzen duen liburua prestatu du >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-06-04

VII.URTEA 1.719.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Julian Rodriguez, erdian, bere ikasleekin. E. EZEIZA

## GORREN ETA ENTZUN DEZAKETENEN ARTEKO MUGAK APURTUZ

**TOLOSA** Zazpi urtetan zeinuen hizkuntza irakasten aritu da Julian Rodriguez Inmakulada ikastetxean; bide berriei ekingo die orain 2

## Udan haur sahararrak etxean hartzeko kanpaina abian da 3

## Zaldiek hartuko dute herria, etzi, egun osoan zehar

**LEABURU** Zaldi Eguna antolatu du bigarren urtez, herritar talde batek, «iazko arrakasta ikusita» 6




Istripuaren ondoren jasotako une bat. A. IMAZ

## Bi kamoiren arteko istripua izan da A-15ean 7

**DISEINU GRAFIKO** eta sormenean  
oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



**ceinpro**

**TITULAZIO OFIZIALAK**

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es

INFORMAZIOA 943 310 873

Hertz Pasealekua 96 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876

CCPI HLP  
PRESENTACIÓN  
DE MARÍA  
Donostia - San Sebastián

LANBIDE HASTAPENA

ESPEZIALITATEAK:

- Eraikuntzetako behe-tentsio instalazioetan laguntzailea.
- Informatika ekipoen konponketan laguntzailea.
- Instalakuntza singularretan laguntzailea: megafonia, telefonia, antenak, alarmak, atezain automatikoak, etab.

MATRIKULA  
ZABALIK  
2009-10 KURTSEAN

Ubarburu Pasealekua, 37 - Pabiloiak: 21-22 - 27 Poligonoa Martutene  
20014 DONOSTIA Tel.: 943 46 01 45 cipp.maria@terra.es  
www.presentaciondonostia.com

**ESTI EZEIZA**

**G**orren eta entzun dezaketen artean muga handiak daude. Interferentzia ugari daude bien arteko komunikazioan. Entzumenik ez dutenentzat oso garrantzitsua da zeinuen hizkuntza dakiten pertsonak egotea. Entzun dezaketena ohartzen ez badira ere, beraiantzat eguneroko bizitzan, ohiko diren gauzetan, entzun ezin dutenei izugarriko esfortzua suposatzen die. Esaterako, bankura joatea, administrazio publikora, epaiketa bate-tara... joatean, interpretatzaile baten beharra dute. Hori dela eta, duela zazpi urte, Tolosaldeko eta Goierriko gormutuen elkarteak antolatuta, zeinuen hizkuntza erakusten hasi zen duela zazpi urte Julian Rodriguez Inmakulada Institutuan. Baina orain, beste bide bat hartzea erabaki du, eta erronka berriak nahi dituelako, elkarteak uzten du.

Hemezortzi lagun inguru izan dira ikastaro hau burutu duten azkenak. Berez, hiru ikasturte irautzen zuen kurtsuak, baina Rodriguezen erabakia zela eta, bitan egin dute hau, bakoitzean ordu gehiago sartuz.

Julian Rodriguezek urte hauek guztiak oso positibotzat jotzen ditu eta oso gustura aritu dela dio. Ikasleek ere hunkituta eta pena handiarekin amaitu dute ikastaroa, eta hizkuntza ezezagun hau ikasteaz batere damurik gabe. Batzuk, jakinmina zutelako, besteak, beraien lanbiderako ongi etorriko zitzaielako hasi ziren zeinuen hiz-



Julian Rodriguez bere ikasleekin batera; bakoitzak, identifikatzeko zeinu bat du. HITZA

Zazpi urtetan zeinuen hizkuntza irakasten aritu da Julian Rodriguez, Tolosaldeko eta Goierriko gormutuen elkarteak kidea; orain bide berri bati ekin dio eta bere azken ikasturteko ikasleekin batera agur esaten du.

## Gorren komunikabide

kuntza ikasten, eta orain, denak ados daude, esatean, oso aberasgarria izan dela.

Hemendik aurrera, gormutuen hizkuntza ikasi nahi dutenek Donostira jo beharko dute. Dena den,

Haur Hezkuntza eta Gizarte Integrazioa bezalako zirkloetan lanean jarraituko du Julian Rodriguezek.

Teknologiaren garapenak herri-arte gehienentzat dakartza onurak, baina hauek, oraindik nabar-

menagoak dira gisa ezberdinak mugak dituztenentzat. Internet bidez, kamerekin, hainbat eta hainbat kilometrora, baldintza berean dauden gormutuekin komunikatu daitezke orain. Telefonoz

deitu ahal izateko ere, zerbitzu berezi bat dute, non, mugikorrek duen kamarari esker, beraiek zeinuen hizkuntza bidez hitz egiten duten, eta, hau itzultzaile batek, beste aldean dagoenari helarazten dion.

### Ahotsa erabili gabe, nola adierazi gaizak

Zeinu hizkuntzaren ezaugarrieta-ko bat da, gorputz adierazpenak pisu handia duela. Edozein pertsonak, emozio bat agertu nahi duenean, ahotsaren tonua erabiltzen du horretarako, baina gormutuek gaitasun hori ez dute. Hori dela eta, aurpegia, eskuak, eta oro har, gorputz osoa erabiltzen dute.

Batzuk, ezpainak irakurtzeko gaitasuna dute, edo hobeto esanda, ikasi egiten dute. Entzun dezaketen pertsonak, ahots tonu bat hizki zehatz batekin lotzen dute, hori dela eta erraza egiten zaie irakurtzea. Baina gorrek ezin dute hori egin, eta zaila egiten zaie irakurtzen ikastea.

Gainontzeko erdal hizkuntze-kin gertatzen den bezala, pixkanaka hasten dira ikasleak zeinuen hizkuntza ikasten. Kolore, zenbaki, eta ohiko esaldietatik hasiz, jolas moduan batzutan, harreman-tzen hasten dira ikasleak. Gainera, berezitasun gisa, bakoitzak bere zeinua du. Azken kurtsuokoe bi irteera ere egin zituzten, bata Hondarribiara eta bestea Oriora. Modu honetan, elkar kontrolatuz, eta gormutu ezberdinekin kontaktuan jarriz, gertuagotik eta modu zuzenagoan landu zuten gaia.

## Babarrun onak emateko sekretuaren gida

**Gizartea** » Tolosako Babarrunaren Elkarteak, lekale preziatu hau nola landatu behar den azaltzen duen liburua prestatu du.

**ERREDAKZIOA**

Babarrunak landatzen hasi nahi duenak honetan lagunduko dion gidaliburu bat du hemendik aurrera. Tolosako Babarrunaren Elkarteak sortu zenetik hona, lekalean ereitearen inguruko ikerketa eta azterketa ugari egin dituzte eta orain, hauek liburu batean bildu dituzte. Tolosako Babarrunaren Landaketa - Gida Liburua izeneko



Atzo aurkeztu zuten liburua; bertan izan ziren, Xabier Goikoetxea, Joxemi Gomez eta Mari Karmen Iradi. E. EZEIZA

argitalpena elkartearen bertan eskuratu daiteke, 15 euroren truke.

Atzo aurkeztu zuten liburua, eta bertan izan zen, besteak beste, Tolosako Babarrunaren Elkarteak kidea eta honela agertzen zuen berak, «babarruna ereiteko asmakizun berezirik ez dugu aurkezten liburu honetan, baina bai azalpenak eman». Bestalde, lan honekin, eskerrak eman nahi dizkiete, 1994tik hona, hau da, elkarteak sortu zene-

tik, bertan parte hartu duten guztiak. Izan ere, Goikoetxeak esan bezala, «liburu hau ez dago idatzle baten idatzita, denon artean egin dugun liburu bat da, urte hauetan guztietan egin ditugun ekarpenekin, eta era berean, denek eskainia dago».

Lurra prestatzen den unetik, babarrunak biltzen diren arteko prozesua agertzen da gida liburuan. Lurra nola prestatu, hazi

ezberdinak, euskarri edo tutore mota egokienak, ureztatzea, hala nola, gaixotasunak. Gai hauek guztiak gainera, urte hauetan guztietan eskuratutako argazki askorekin ilustratuak daude.

Euskaraz soilik dago idatzita lana, honen arrazoitzat agertu zuten, oraindik behintzat Tolosako Babarruna eta bere zaintzaileen hizkuntza nagusia hori dela. Atzoko aurkezpenaren eskerrak eman

nahi izan zizkieten elkarteok, Tolomendi, Kalitatea Fundazioari eta Aiurriko taldeari.

### Tolosako erdigunean babarruna ereiteko aukera

Duela hiru urte hasi ziren, garai hauetan, Tolosako erdigunean babarruna ereiten. Izan ere, aukera gutxi dute tolosarrek babarruna hazitzen ikusteko. Hau ikusita, duela urte gutxi hiriaren Alde Zaharrean hasi ziren lekalea ereiten, tolosarregana hurbiltzeko asmoz. Ohiturarekin jarraituz, bihar Emeterio Arrese pasealekuan, Oria Hotelaren aurreko lorategian, babarrun haziak landatuko dituzte. 11:00etan hasiko da ekitaldia eta bertan izango dira Foru Aldundiko, Udaleko, Tolosako Babarrunaren Elkarteak, Tolosako Babarrunaren Kofradiako, Gure Kaiola elkarteak eta Tolosako hainbat jate-etako ordezkariak.

Sukaldariak, bide batez, horrenbestetan prestatu dituzten babarrunen goxotasunaren inguruan mintzatuko dira. Beraiekin batera izango dira Laskorain ikastolako ikasleak.

## Iragarki laburrak

**SALGAJ**

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahi izanez gero 616 54 29 60 telefono zenbakira. Kotxearekin edo kotxerik gabe.

Urtero bezala, abian da 'Oporrak bakean' ekimena; errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren haur sahararrak etxean hartzea da helburua; eskualdean familiak behar direla azaldu dute.

# Beharrezko oporrak

INIGO TERRADILLOS

**M**artxan da eskualdean, Euskal Herri osoan bezala, *Oporrak bakean* programa. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin kudeatzen du ekimena, eta eskualdeko hainbat Udalen parte-hartzearekin, Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren haur sahararrak udan etxean hartzea da helburua.

Uztailaren hasieratik irailaren hasierara bitarte eskualdean igaroko dute uda gaztetxo hauek. Honenkin, desertuko tenperatura latuak (50 gradutik gora) ekidin ahal dituzte, osasun azterketak egiten dituzte, eta izan ditzaketen nutrizio akatsak konpondu ditzakete. Baina, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin kideek azaltzen duten bezala, «hori baino askoz ere gehiago lortzen da ekimen honen bidez: saharar herria ezagutzeko bide ematen du haurren egonaldiak, bertako egoera latza bertatik bertara ezagutzeko; haurren eta familia hartzailearen artean lotura estua sortzen da; eta, beraien egoeraz jabetuz, solidaritatea sustatzen da, laguntzeko grina, alegia».

## Familia hartzaileak behar dira

Hau guztia errealitate bihurtzeko, ordea, familia hartzaileak behar dituzte eskualdean. Dagoeneko hainbatek eman dute izena, baina oraindik ere gehiago behar dituzte etorriko diren gaztetxo guztiei lekua eta familia eskaini ahal izateko.

Alegia, Anoeta, Ibarra, Leaburu-Txarama, Tolosa eta Villabona dira eskualdean *Oporrak bakean* programarekin bat egiten duten Udaketako batzuk. Euren kontura doaz, hain zuzen ere, haurren bidaia eta osasun gastuak. Familia hartzaileek gaztetxoaren eguneroko gastuari baino ez diote aurre egiten behar.

## «Uda ahaztezina izango da»

Halaber, familia hartzaileak laguntzeko koordinazio lanak egiten pertsona bat izango da gaztetxoak eskualdean dauden bitartean, eta berarekin batera, saharar begirale bat ere edukiko dute. Beraz, laguntza une oro izango dute familia hartzaileek, eta horretaz gain, ludoteka zerbitzua ere eskatu ahal dute, «haurra bi hilabetez ardatzeko zailtasunak dituzten kasuetan».

Animatzen diren familiek ahalik eta azkarren eman beharko dute izena. Hainbat modu dituzte: Tolosaldea Sahararekin elkartera deituta, 645 71 07 89 zenbakira, edo bestela, eskualdeko udaletxetako gizarte zerbitzuekin jarrita harremanetan.

Bai sahararren aldeko elkartetik, bai eta parte hartzen duten udaletatik ere, eskualdeko herritar guztiei egiten diete deia, «anima daitezten, eta parte har dezaten ekimen honetan, familiak behar baititugu oraindik; bai gaztetxoek bai eta familiek ahaztuko ez dituzten bi hilabetez igaroko dituzte, ziur».



Bi saharar haur Aljeriako Tinduf hirirearen ondoko errefuxiatuen kanpalekuetan. I.T.

## » DATUAK

### Ezaugarriak

■ **Ekimena.** *Oporrak bakean* programa. Haur sahararrak udan, bi hilabetez, etxean hartzeko kanpaina.

■ **Iraupena.** Uztailaren hasieratik, irailaren hasiera arte.

■ **Izen-ematea eta informazioa.** Ekainaren 15a izango da izena emateko azken eguna. Udaletxetako gizarte zerbitzuetan nahiz Tolosaldea Sahararekin elkartean

(645 71 07 89) eman ahalgo da izena, eta bertan eskatu daiteke informazio gehiago, baita ere.

### Helburuak

- Haurrak desertuko tenperatura altuak ekiditea.
- Azterketa medikuak egitea.
- Nutrizio akatsai aurre egitea.
- Bi herrien arteko kultur harremanak mantendu eta sakontzea.
- Familien arteko adiskidetasuna

eta kooperazioa eratzea, bizitzin jarraitzen laguntzeko.

■ Bizi duten egoera gertutik ezagutzeko.

### Baldintzak

■ Pertsona bakarrekoak, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe edo jubilatua izan daitezke familia hartzaileak. Saharako herriari laguntzeko gogoia izatea da baldintza bakarra.



## Adimen emozionalean aitzindari

**HEZKUNTZA** ● Jose Ramon Guridi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berri-kuntza eta Gizarte gaietarako diputatuaren bisita izan zuten atzo Laskorain eta Hirukide ikastetxetan. Hain zuzen ere, Jone Urteagarekin eta M. Angeles Elorzarekin, Laskorain eta Hirukideko zuzendariak hurrenez hurren, izan zen diputatua, bisita honetan. Bi ikastetxeen lana eskertu zuen «adimen emozionalean aitzindari izateagatik». Hala, bi ikastetxeak bisitatu zituen «adimen emozionala lantzearen ondorioak bertatik bertara ikusteko helburuz». I.T.

## Tolosako Udala

IRAGARKIA

2009ko maiatzaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2009-2010 ikasturteko Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten. Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espeditatea aztertzea ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioek edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko. Tolosan, 2009ko ekainaren 2an ALKATEA

## Kontenedorea bidali du Mali Elkartasunak

### ERREDAKZIOA

Mali Elkartasuna elkarteak edukiontzia handi bat bidali du Malira. 20 lagun inguru aritu ziren lanean Txaramako pabilioi batean, elkartekoez gain beste talde batzuetako kideak ere, horrelako lanetan eskarmentua dutenak.

Hainbat gauza sartu zituzten kontenedorean: auto bat, sei moto, gurpildun aukiak, eskola materiala, medikamentuak, arropa, jostailuak, informatikako materiala, generadore handi batzuk... Hiru ordu eman zituzten lan horretan bertan bildutakoek.



Edukiontzia betetzen aritu ziren lagunak. HITZA

## Laburrak

### Ezker abertzalearen hautetsien agerraldia

**VILLABONA** • Eskualdeko ezker abertzaleko hautetsiek agerraldia egingo dute, gaur, 18:00etan, Villabonako Plazan, udaletxe azpian. Bertan Iniziatiba Internazionalistari babesa emango diote.

### Aparteko osoko bilkura Tolosako Udalean, bihar

**TOLOSA** • Aparteko osoko bilkura deitu du Tolosako Udalak biharko, hilaren 5a. Bilkura 08:00etan hasiko da.

### Izena emako aukera San Joan Eguneko bazkarirako

**ANOETA** • Urtero bezala, Udalak herriko jubilatu eta pentsiodun guztiei eskainiko die bazkari bat Anoetako Herri Ikastolan hilaren 24an, San Joan Egunean, 13:30ean. Bertara gonbidatuta daude baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: Anoetan eroldaturik egotea, jubilatu edo pentsioduna izatea eta 60 urtetik gorakoa izatea (hauek barne). Izena eman daiteke udaletxean, 09:00etatik 13:00etara. Horretarako azken eguna hilaren 19a da.

## III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren finala egingo dute bihar Asvinenean

### ERREDAKZIOA

Asvinenean antolatzen duen III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren finala iritsi da. Lau talde ariko dira bihar, Adunan dagoen Asvinenean aretoan, 22:00etan hasiko den emanaldian. Guztia lau kanporaketan dira eta bi finalerdi.

Aurreko ostiralean egin zen bigarren finalerdi eta bertan epaimahaiak erabaki zuten Irube taldeak egingo zuela finalerako bidea, *Bat, bi eta hiru* obreakin. Ikusentzuleek Maneras de Sentir taldea aukeratu zuten, *Me cambio, me cambio, me cambio* lanarekin.

Bi lehiakide hauez gain, beste finalerdian sailkatu ziren bi taldeak izango dira biharko finalean. Alde batetik Tres Tristes Tristes *Puerta!* lana antzeztuko du eta bestetik Teatraigo taldeak *Le Mamelon Fantastic* emanaldia antzeztuko du.

## Banatu dituzte bertso eta ipuin sariak

### ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak bertso eta ipuin sariketako sarien banaketa egin berri du Gurea aretoan. Lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailatik hasita DBHko 3. eta 4. mailabitarte eman dituzte sariak.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan, bertso sailean, Aitor Amonnarriz, Oier Otegi eta Iñigo Amenabarrek jaso zituzten. Ipuin sailean, Maddi Unanue, Manex Irazusta eta Nagore Muriel izan ziren sarituak.

LHko 5. eta 6. mailan, bertso sailean, Alaitz Urkizu, Nagore Arin, Danie Herrero Garcia jaso dituzte hiru lehen sariak eta Erika Amundarainek aipamen berezia jaso du. Ipuin sailean, Iride Ugalde Jimenez, Anne Murillo eta Gorka Amondarain dira sarituak.

DBHko 1. eta 2. mailan, bertso sailean, Haritz Mujika, Amaia Aizpurua Saizar eta Iñigo Irisarririk jaso zituzten lehen hiru sariak eta aipamen berezia Mirentxu Barbek. Ipuin sailean, Jon Fernandez, Martin Lizardi, Beñat Monfort dira sarituak.

DBHko 3. eta 4. mailan, bertso sailean, Irati Olazabal, Leire Lasa eta Maider Garin dira sarituak. Aitor Castrok jaso du aipamen berezia. Ipuinen sailean, Tere Barbero, Eider Urkola eta Maitane Alkorta dira saridunak.



Saria jaso duten ikasle guztiak. AIURRI

**aldaketa**  
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

**bozkatu**  
www.iniciativainternacionalista.org

**Iniziatiba**  
INTERNACIONALISTA

**gaur**

• **BILLABONA** Ekitaldi kulturala 18:00 Gurea antzokian  
• **TAFALLA** Ekitaldi 19:30 Kube diskotekan • **IRURTZUN** Hitzaldia 19:15 Udaletxean • **ELGOIBAR** Propaganda banaketa merkadilloan  
• **PASAI ANTZO** Kotxe karabana 19:30 Luzuriagatik • **ORERETA** Kotxe karabana 19:00 Masti Loiditik • **LEKEITIO** Ekitaldi 19:30 Independentzia plazan • **ELORRIO** Ekitaldi 19:30 Arriola aretoan • **ONDARRU** Kalejira • **GALDAKAO** Ekitaldi 20:00 Santi Brouard plazan • **BILBO** Alde zaharran hitzaldi-huntxa • **BILBO ZAHARRAN** Afaria • **AGURAIN** Kotxe karabana 18:30 Frontoi zaharretik • **IGANTZI** Hitzaldia 20:00 elkarteon

**bihar**

• **GASTEIZ** Kanpaina itxiera 19:00 Guridi zinematik  
• **LEITZA** Ekitaldi 20:00 Plazan • **ALTSASU** Ekitaldi 19:00 Plazan • **UHARTE** Ekitaldi 19:30 Plazan • **CORTES** Ekitaldi 20:00 Kultur etxean • **IRUÑEA** Triki poteoa eta afaria 20:30 • **AIBAR** Hitzaldia 19:00 Eskoletan • **AGOITZ** Hitzaldia 20:00 Aurelio Leon kultur gelan • **MUTRIKU** Ekitaldi 20:00 Behoko plazan • **DEBA** Ekitaldi 20:30 Plazan. Ondoren afaria Arranon • **SORALUZE** Ekitaldi 20:00 Plaza berrian • **EIBAR** Ekitaldi 19:00 Untzaga plazan • **BILBO** Ekitaldi 19:00 Indautxu plazan • **ASTIGARRAGA** Sardinada 20:30 • **HONDARRIBIA** Ekitaldi 20:00 Zabalaren txokoan • **IRUN** Ekitaldi 20:00 San Juan Plazan • **ORERETA** Ekitaldi eta afaria 20:30 Herriko plazan • **MAKIRRIAIN** Ekitaldi 21:00 Herriko plazan • **LEIOA** Ekitaldi 20:00 Plaza gorrian • **SESTAO** Jaialdi 18:00-tik aurrera • **SANTURTZI** Parrillada • **ASTRABUDUA** Hitzaldia 20:00 Josu Muruetan • **DURANGO** Afaria • **IURRETA** Afaria • **LARRABETZU** Parrillada • **AULESTI** Afaria • **ZALDIBAR** Afaria • **OTXANDIO** Afaria • **BERRITXU** Bertso afaria 19:00 • **URDUÑA** Hitzaldia 19:30 Aduana Hotlean • **ERROMO** Ekitaldi 20:00 Santa Eujenian • **ABANTO** Ekitaldi 19:30 Dolores Ibarruri parkean • **ARAMAIO** Ekitaldi eta luntxa 19:30 • **ATARRABIA** 19:00 Sancho VI Sabio plazan • **ETXALAR** Afari-hitzaldia 21:00

**igandean zenbaketa gaua 20:30**

**Iruñea**

**Bilbo**

**Donostia**

**Gasteiz**

TXANTREA  
Peña Armonía Txantreana

**SPOT ELEKTORALAK**  
ekainak 4 osteguna, 10:30 ETB 2



# Ane Balerdi eta Jokin Tolosa Trikitixa Txapelketan bikain

**Amezketak** » Altxotarra eta amezketarra «pozik» daude, Getarian finalera iritsi izanagatik, guztien artean gazteenak izanik.

NEREA URBIZU

Joan den larunbatean Getarian X. Trikitixa Txapelketa jokatu zuten 18 urte bitarteko gaztetxo askok. 12 bikote aurkeztu ziren bertan, eta tartean Tolosaldeko bikote bat: Ane Balerdi altxotarra eta Jokin Tolosa amezketarra, hain zuzen.

Bikote gazteena izan zen parte-hartzaileen artean, Anek 14 urte eta Jokinak 13 izanik (1995ean jaioetakoa) eta egun berean izandako kanporaketaren ondoren, finalerako sailkatu ziren, beste 5 bikoterekin batera.

Beraien bigarren txapelketa izan zen larunbatekoa. Iazko txapelketa nolako den ikusteko balio izan zuten aurtengoak, berriz, aurrera jarraitzeko.

Finalean ere «oso saio polita» egin zuten. Kontuan hartu behar da, beste bost bikoteekin hainbat txapelketetan parte hartu izan dutela, txapelak ere badituztela, eta hauen alboan, «maila polita eman zuten» bi gazte hauek.

## Musika eskolatarako ikasleak

Ane Balerdi Loatzo musika eskolako ikaslea da eta Maixa Lizarribarrek ikasten du trikitixa. Jokin



Jokin Tolosa eta Ane Balerdi ederki aritu ziren Getarian. HITZA

Tolosak berriz, Irma Karreraren eskutik jasotzen du panderoko eskola. Beraz, Amezketako musika eskolan ikasten du, duela hiru urte.

Txapelketan jo zutena honakoa izan zen: trikitixaren garaian, Maixa Lizarribarrek espreski txapelketarako asmatutako kantua jo zuten, kantu herrikoiekin nahastuta. Pot-pourria Goseren, Korrontziren, Tapia eta Leturiaren eta beste hainbat talde eta abeslariaren kantuekin osatu zuten. Bukatzeko, fandangoa aukeratu zuten, Sakabiren bat, hain zuzen. Kanporaketan trikitixa jo zuten hiruetatik.

Bi protagonistak «txoratuta»

daude, ia sinetsi ezinik: «Ezuste-koa denentzat izan da» Maixa Lizarribarrek aipatzen duen bezala. Hemendik aurrera bikote hau datozen txapelketatan aritzeko kantak prestatzen hasi dira. Animatuta daude, «gogotsu» trikitixarekin, «ikusi baitugu ezer ez dela ezinezkoa», Anek dioten moduan.

## Txapeldunak Zestoakoak

Aurtengo irabazleak Zestoako Monik Valor eta Eider Iraola izan dira, 17 urtekoak. Bigarren postuan, berriz, Edurne Errandonea (Andoain) eta Ander Beldarrain (Aia) gelditu ziren.

# «Finalean aritzea ezustekoa eta sorpresa izan da»

**ANE BALERDI ETA JOKIN TOLOSA** Trikitilariak

**Altzo** » Txapelketako gazteenak izanik, «pozik» daude trikitilariak eta pandero-jotzailea; parte hartzen jarraituko dute.

N. URBIZU

Alegiako Aralar institutuan ikasten dute Ane Balerdik eta Jokin Artolak (Altzo eta Amezketak, 1995).

**Noiz hasi zineten musika tresnak jotzen?**

**Ane Balerdi.** Trikitixa 6-7 urterekin hasi nintzen jotzen.

**Jokin Tolosa.** Panderoa duela 3 urte hasi nintzen.

**Noiz hasi zineten prestatzen?**

**A. B.** Ni Eguberriaren ondoren hasi nintzen prestatzen trikiti doinuak, guztira 5 hilabete inguru.

**J. T.** Eta elkarrekin duela hilabete inguru hasi ginen, batzuetan Altxotza joanez eta bestetan Amezketara.

**A. B.** Azken hilabetearen astean lau aldiz edo, elkartu gara, azkenean landu dugu txapelketa.

**Nola jarri zineten harremanetan?**

**J. T.** Aralar institutuan ikasten dugu biek, klase berekoak gara. Anek aipatu zidan txapelketan iaz bezala parte hartzeko eta gero Irma berak. Horrela hasi ginen.

**Espero al zenuten finalean iristea?**

**A. B.** Inondik inora ere! Itxaropenik gabe joan ginen, probatzera ia. Finalean pasaginela esan zutenean sorpresa ikaragarria izan zenguztatzat. Oso urduri geunden. Aurrera jarraitzeko indarra eman digu.

**J. T.** Jende asko zegoen, urduri geunden. Bigarren aldiz hartzen genuen parte eta egia esan, ez genuen espero finalean aritzea. Finalean urduriago geunden kanporaketan baino.

**Jotzeaz gain abestu ere abestu behar izan zenuten, ezta?**

**A. B.** Bai, jo eta abestu egiten da. Gainera, paperik gabe. Hau arauetako bat da, hau da; ezin da paperekin jo eta abestu.

**Beraz, pozik?**

**A. B.** Nire urtebetetze eguna zen eta opari bikaina izan zen, opari hau gaudituko duenik ez dago.

**J. T.** Bai pozik, gu baino zaharragoak ziren eta gu disfrutatzen joan ginen hara, ondo pasatzera.

**Eta hemendik aurrera zer?**

**A. B.** Hemendik aurrera beste txapelketa batzuetan parte hartuko dugu urtean zehar: Nafarroan baten bat, Zaldibarren... Dagoeneko prestatzen hasi gara abesti berriren bat.

**J. T.** Irakasleek esan ziguten eta animatu egin gintuzten.

# 22 urtez azpikoen final aurrekoak, etzi

**Pilota** » Etzi 11:00etan Beotibarren jokatuko dute; bihar Albizturren eta Adunan 19:00etan, eta etzi Berastegin 11:00etan.

ERREDAKZIOA

Hitza Pilota Txapelketako finalerdiak izango dira 22 urtez azpikoen mailan, etzi. Beotibarren izango dira, 11:00etan hasita. Mitxelena-Telletea eta Santesteban-Albisu izango dira lehenik, eta ondoren, Iturrioz-K. Galarraga eta Azpiri-Madariaga.

Bihar, berriz, Albizturren eta alebiren mailan. Peña-Egiguren eta Iraola-Irazusta; Marketegi-Arrizabalaga eta Plazaola-Altuna; eta bukatzeko, Zabala-Zabala eta Aizpuru-Zubiarreren artekoak. 19:00etan hasiko dira.

Bihar ere, Adunan infantilak ariko dira: Olano-Tolosa, Erasun-Iri-

sarri; Altuna-Otamendi, Aizpuru-Arrue eta Larrea-Iribarria, Altuna-Lujanbio. Lehen partida 19:00etan hasiko da, beroketak egin ondoren.

Etzi benjaminen txanda izango da Berastegin. Hauek 11:00etan ariko dira, kasu honetan: Salaberria-Zinkunegi eta Yerei-Elizegi; Furundarena-Lejardi eta Agirre-Ugartemendia eta Bergantinos-Zubeldia eta Oiarbide-Otamendi.

## Kadeteen emaitzak eta hurrengo partidak

Bidanian kadeteak lau terdikoan aritzen dira asteartean eta datorren astean Labaka eta Arrizabalaga, Artola eta Jaka, Azketa eta Ulanga eta Arratibel eta Ariztimuño lehiatuko dira.

Aste honetan jokatu dituzten partidetan hauek izan dira emaitzak: Iribarren 6, Azketa 18, Ulanga 18, Maiza 4; Arratibel 18, Nazabal 5, eta Gaztañaga 5, Ariztimuño 18.

# Albizturren erremontistak

ERREDAKZIOA

Albizturko Kultur Asteko datozen ekitaldiak asteburu honetan bertan izango dira. Hain juxtu, bihar, kirolzaleek zita interesgarria dute Kultur Etxean 20:00etan: erremonte jokalariek ezagunak joango dira kirol honen inguruan mintzatzeko. Erabiltzen duten materialak ere ekarriko dute, erakusteko.


Zeberio II.a elduaindarra eta

Gaztelu leitzarra egongo dira Albizturren, eta hobekien menperatzen duten kirolari buruz hitz egin ondoren, bertaratzen direnek galderak egiteko aukera izango du. Zuerenik bitxikeriak ezagutzeko aukera emango dutela erremontistek.


Etzi, berriz, Saiatz Mankomunitateak antolatuta, Iparraldera egun guztiko txangoa egingo dute

adinekoek. 08:30ean aterako dira plazatik eta xarmaz handiko hiria ezagutuko dute: Baiona, turismogidari baten eskutik, datu interesgarriak eta bitxikeriak kontatzeko.

Arratsaldean txokolate fabrika bisitatuko dute, produktu gozo honen prozesua ezagutzeko besteak beste. Guztira 35 bat herritar animatu dira bertara joateko. Iluntzean Albizturren izango dira.



**TOLOSAKO  
INMAKULADA  
IKASTETXEA**



Kondeko aldapa 5B Tolosa  
www.inmakuladatolosa.com  
943673629

HEZIKETA ZIKLOAK

**Goi maila**

- Gizarte Integrazioa
- Hour Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

**Erdi maila**

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

ZATZOZ GU EZAGUTZERA

**AURREMATRIKULAK  
EKAINAK 1-12  
BITARTEAN**



## Zubeldia Haur Kantari Txapelketan

**LIZARTZA** ■ Mateo Zubeldia gazte lizartzarra etzi, hilak 6, Barakaldo Antzokian 17:00etan izango den Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketako finalean ariko da bakarlarri moduan. Iragan apirillean, Azkoitian izanda-

ko Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdian, eskuratu zuen finalerako txartela. Zubeldia Leire Zubeldia trikitilariarekin, Amets Esnaola gitarristarekin eta Garazi Esnaola piano-jotzailearekin ariko da txapelketan. HITZA

## Isastegik eta Zalbidetik irabazi ahal dute Sagardo Lehiaketa

**Tolosa** ■ Etzi Donostian izango den ekitaldian emango dute jakitera zein sagardotegik irabazi duen.

### ERREDAKZIOA

Hernaniko Zelaia, Astigarragako Oyarbide, Tolosako Isastegi, Usurbilgo Saizar eta Urdaira eta Abaltzisketako Zalbidetik sagardotegiak dira Gipuzkoako Foru Aldundiko urtero antolatzen duen VIII. Sagardo Lehiaketako finalistak.

Donostian etzi 12:00etan Gastronomiako Euskal Anaiartean egingo dute ekitaldian banatuko dituzte hiru sariak: lehenengoak 2.500 euro, txapela eta garaikurra irabaziko ditu; bigarrenari 1.500 euro eta garaikurra emango dizkiote, eta hirugarrenak 750 euro eta garaikurra jasoko ditu.

## Ibarra areto futbol taldeko gazteak Bilboren aurka, Euskal Kopako finalean

**Ibarra** ■ Gipuzkoako Jubenilen Txapelketako lehen saria eskuratu zuten ibartarrek pasa den asteburuan.

### ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldeko gazteek Gipuzkoako Jubenilen Txapelketako lehen saria eskuratu zuen pasa den asteburuan eta, ondorioz, igandean Euskal Koparen finala jokatu du 12:00etan Durangoko Landako Kiroldegian.

Bizkaiko txapeladunaren aurka ariko dira ibartarrak, G.S.I. Bilboren aurka, hain zuzen. Bilbotarrak dira iaz Euskal Kopa irabazi zutenak.

Taldeko arduradunek autobusa antolatu dute Durangora joateko. 10:00etan aterako da Euskadi Kutxaren paretik.

## Gazteluko Gabirondo Sega Ligako lehen kanporatzeko onena

### ERREDAKZIOA

Aurten ere Euskal Herriko Nazioarte Erako Segua Liga antolatu du Almitza Segua Elkarteak. Bigarrenengo edizio honetan ere emakumezkoek 5 metro koadroko (7x7) saila ebaki beharko dute eta gizonzkoek, berriz, 100 metroko (10x10).

Hiru saio izango dira; lehenengo Udaben (Nafarroa) izan zen maiatzaren 30ean eta datorrena hilaren 21ean izango da Donibane Garazin. Finala, berriz, uztailearen 5ean izango da Zaldibian.

Lehen kanporaketa honetan, gizonzkoen sailean, Gazteluko Joxe Gabirondo izan zen azkarrena, 4 minutu eta 33 segundo behar izan baitzuen saila mozteko; bigarrena Oartzungo Bixente Mitxelena izan zen 4 minutu 48 segun-

dorekin; hirugarrena Asteasuako Juan Jose Lizaso izan zen 5 minutu eta 55 segundorekin; eta laugarrena Altzoko Miel Mari Jauregi izan zen 5 minutu eta 18 segundorekin. Emakumezkoetan, aldiz, azkarrena, Legorretako Arrate Garin izan zen. Azkarrena izatea, hala ere, ez da nahikoa izango irabazteko, izan ere epaileek txukuntasuna ere hartzen dute kontuan.

Jardunaldi bakoitzean egindako lanaren arabera banatuko dituzte puntuak eta hauek metatu egingo dituzte, ondoren. Azken saioaren ondoren punturik gehien lortu duen segalarriak irabaziko du liga. Ligan sailkatzen direnak Europako Finala jokatu dute Alemaniaren abuztuaren 22ean eta 23ean. 10 gizon eta 5 emakume izango dira, zehazki, bertara.

## Iazko arrakasta ikusita aurten ere Zaldi Eguna antolatu dute

**Leaburu** ■ Egun guztian izango dira ekitaldiak; goizean, zaldunen gosaria izango da eta bukatzeko, berriz, musika.

### ERREDAKZIOA

Aurreko urtean I. Zaldi Eguna izandako «harrera ona» dela eta Leaburu herriar talde batek aurten bigarren edizioa antolatzea erabaki du. «Zaldiaren inguruan asko dagoelako ikusteko eta ikasteko», argitu dute antolatzaileak.

Esan dutenaren arabera, aurtengo Zaldi Eguna aurreko edizioa baino lehenago izango da, etzi, hilaren 6an. «Goizetik hasi eta gauak ongi gertatzen bitarte, ekitaldi ugari antolatu ditugu egun osoan. Zaldiak protagonista nagusitatu hartuz, Leaburu gerturazten den orok ekintza eta aktibitate ugari ikusteko parada izango du», gaineratu dute antolatzaileak.

### Ibilaldia, bazkaria...

Aipatu moduan, egun guztian zehar izango dira ekitaldiak. Eguna goizeko bederatzietan hasiko dute zaldunen artean banatuko duten gosariarekin eta ondoren ibilaldia egingo dute.

Bazkaria ere izango da herriko frontoian eta menua hau izango delarik; helduentzako krabarroca budina modena erredukzio eta maionesarekin, momentuan egindako paella mistoa, txekor biribil-



Iaz ere zaldigurdian ibiltzeko aukera izan zen Leaburu. I. TERRADILLOS

kia bere zukuak eta barazki eta patata-purearekin eta San Markos tarta kiwi saltsarekin; umeentzako, aldiz, makarriak tomate eta haragi txikituarekin eta izozkia banatuko dute. Bazkaldu eta gero zaldi-proba ere izango da, beste-

ren artean, eta arratsalde guztian zehar, gainera, zaldigurdian ibiltzeko aukera ere izango da, iaz bezala.

Eguna Zurrust taldearen emandiarekin amaituko dute plazan barrikotea egin eta gero.

### » EGITARAUA

#### Etzi, hilak 6

■ **09:00.** Zaldunentzako gosaria herriko plazan.

■ **09:30.** Ibilaldia: Leaburu-Berastegi-Uli-Leaburu. Uliko atsendenlekuan hamaiketako banatuko dute zaldunen artean.

■ **13:00.** Zaldi eta zaldunen etorrera.

■ **14:00.** Bazkaria izango da herriko frontoian. Bazkaria eta gero zaldientzako eta zaldunentzako

tresneriaren zozketa ere egingo dute.

■ **17:30.** Heziketa naturala Jose Mari Goldaratzaren eskutik; heziketa klasikoa Pello-Lizarperekin; eta ondoren, zaldi erakustaldia eta behor baten estalketa izango dira.

■ **19:00.** Zaldi-proba erakustaldia Belauntzako Jose Luisen eskutik.

■ **21:00.** Barrikotea herriko plazan.

■ **23:00.** Zurrust musika taldea goizaldera arte.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Bi kamioiren arteko istripua A-15 autobian

**ARESO** • Bi kamioik elkarren aurka talka egin zuten atzo eguerdian Astomela zubiaren hasieran. Bizilagunek kolpea 12:00ak inguruan entzun zuten. Ondoren bi helikoptero, anbulantziak, suhiltzaileak eta abar gerturatu ziren A-15 auto-

biara. Bertan bi kamioi aurkitzen ziren, Gipuzkoatik Iruñera-ko noranzkoan. Gidarietako bat larri eraman zuten zaurituta. Lehen berriek aipatu zuten, Iruñea aldetik zetorren kamioi txuria aurkako noranzkora sartu zen, tarteko babes

burdina hautsiz. Behin aurkako noranzkoan, beste kamioi bat jo zuen alboetik. Maldan behera zihoan kamioia errepidearen erdian gelditu zen, bestea kanpoan. Polizia desberdinek Leitzatik bideratu zuten Iruñerako zirkulazioa. **A.I.**

## IX. Iparraldeko Joku Torneoa

**Leitza** » Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Joku Torneoa bi leitzar aterako dira: Urrutia eta Sukuntza.

### ASIER IMAZ

Iparraldeko Jokuetan 7 herri kirol desberdin sartzen dira. Joku hauek oinarritzat hartuta, Nafarroako Herri Kirol Federazioak IX. Iparraldeko Joku Torneoa antolatu du.

Torneoko irabazleak nortzuk diren hiru jardunaldi jokatu ostean ikusiko da. Parte-hartzaileen artean bi leitzar aurkitzen dira: Joxetxo Urrutia eta Migel Angel Sukuntza.

### Harriarekin eta txingekin

Burlatako Larrañeta Plazan jokatuko da IX. Iparraldeko Joku Torneoaren lehen jardunaldia, etzi 18:00etan.

Iparraldeko Jokuen barnean honako modalitateak aurkitzen dira: lokotx biltzea, ingude altxatzea, txinga erutea, harrijasotzea, lasto altxatzea, orga jokoa eta zaku lasterketa. Nafarroako Herri Kirol Federazioak ordea, Torneo honetarako, orga jokoa izan ezik gairontzeko denak sartuko ditu.

Probak banakakoak izanen dira eta guztira 3 jardunaldi jokatuko dira liga sistema erabiliz.

Bigarren jardunaldia Etxaurin jokatuko da, hilaren 14ean. Hirugarrena berriz Lakuntzan, hilaren 21ean.

Josetxo Urrutia bi probatan ari-tuko da, harrijasotzen eta txingak eroaten. Migel Angel Sukuntza azken honetan bakarrik irtengo da.

Harri-jasotzaileek ondorengo lana egin beharko dute: 125 kiloko zilindroari ahalik eta jasoaldi gehien eman beharko dizkiote minutu batean; 112,5 kiloko kubikoa-rekin ariko dira ondoren, minutu bateko denboran. Azkenik, 100 kiloko bola hartuko dute eta honekin ere minutu bat edukiko dute. Hiru jardunaldietan jasotako kiloak batuko dira.

Txingari dagokionez, bi leitzarrek 40 kiloko txingekin ibiliko dira. Hemen ere hiru jardunaldietako plazen batuketa hartuko da kontutan.

## Ingurutxo dantzatzuko dute haurrek jaietan

**Areso** » Abuztuaren 15ean dantzatzuko duten arren, entseguak astelehenetan eta ostiraletan egingo dituzte.

### ERREDAKZIOA

Ikasturte honetan dantza talderik atera ez dela ikusita, Guraso Elkarteak Aresoko festetako egitarauaren barruan, orain arte haurrek eguerdian egiten zuten ohiko dantza saioaren ordez Ingurutxo Txikia antolatzea erabaki du.

3 urtetik 15 urte bitarteko haurrentzat dago pentsatuta eta jada entseguak martxan daude.

### Entseguak non eta noiz

Guraso Elkartearen ekimena gauzatzeko, haurrek herriko jaietan Ingurutxo dantzatzeko, entseguak ekainarekin batera jarri zituzten martxan. Lehena hilaren lehen egina zuten, astelehenean. Bigarrena bihar egingo dute, ostiralean. Bi egun hauetan izango dira entseguak hilabete honen baitan.

Jaiak abuztuan direnez eta Ingurutxo 15ean egingo dutenez, azken entseguak abuztuaren egingo dituzte.

Irakaslea Nerea Azpiroz izango da, gurasoen laguntzarekin. Entseguak 17:00etan hasiko dira eskola atzeko patioan. Eguraldi txarra eginez gero, soinketagelan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95





22°  
12°

GOIZA	EKAITZA
ARRATS.	EKAITZA
BEROENA	21°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxe.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Tolosa.** Ipuin txokoa Haur Liburutegian 18:00etan Miriam Mendozarekin 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta gurasoentzat.
- **Tolosa.** Artisansaia Azoka Trianguloan 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.
- **Tolosa.** Sanjoanetako Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude jada Orbela taberna ostiralean 19:00etatik 21:00etara larunbatean 12:00etatik 14:00etara.

### Kirola

- **Villabona.** Tatxeras (Zuriza) - Atxar de Alano (2.099 m) - Peñaforca (2.391 m) - Lenito (2.339m) - Siresa irteera antolatatu du Aizkar-di mendi elkarteak 14rako. Izen-ematea, elkartearen bertan (649 717182).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1.943 673649.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



## Aste Berdeko ekitaldiak burutzen eskualdean

**INGURUMENA** • Eskualdeko hainbat herritan ari dira Aste Berdearen ekitaldiak burutzen egunotan. Atzo, besteak beste, Iruran bi ekitaldi izan zituzten. Alde batetik haurrek mural pintaketa egin zuten eta helduek aromaterapia ikastaroa izan zuten. Gaur ere jarraituko dute ekitaldiek. Berastegin erreka garbiketa egingo dute 15:00etan. Iruran plastikorik gabeko eguna izango da. Dendetan ez da plastikozko poltsarik banatuko eta udaletxean poltsa berrerabilgarriak eskuragarri izango dira. Villabonan *Cenizas del Cielo* filma ikusi daiteke 19:00etan Gurea aretoan. Azkenik, Zizurkilen, 20:15ean, *Uhalde Enararen gestioa Zizurkilen* hitzaldia entzuteko aukera izango da Atxulondo kultur etxean. Bihar Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da eta hainbat ekitaldi izango dira ere. Tartean bigarren eskuko azoka Villabonan. 17:00etatik 21:00etara izango da Errebote plaza eta salmenta postuak, berrerabilte tailerrak eta kale animazioa egongo dira. I.GARCIA

# Alfonso Europara!

## EKITALDI KULTURALA

**BILLABONA 18:00**  
Gurea antzokian

**ATXIKIMENDUAK:** Fito Rodriguez (idazlea, EHUko irakaslea) • Uxue Alberdi (idazlea, bertsolaria) • Jon Mala (bertsolaria) • Joxemari Agirretxe (pailazoa) • Alora Zulaika (pailazoa) • Xanti Antero (Magoa) • Juan Gorriti (eskultorea) • Josu Txapartegi 'Txapas' (irakaslea) • Asier Gozategi (musikaria) • Egoitz Lasa (aktorea) • Martin Anso (idazlea) • Jon Ander Eborriaga (EHUko irakaslea) • Xabi Strubell (musikaria) • Patxi Salaberri Muñoz (idazlea, EHUko irakaslea) • Iñaki Azaldegi (euskara teknikaria) • Joxe Austin Arrieta (idazlea) • Pedro Alvite Rueda (EHUko irakaslea) • Mikel Soto (editorea) • Andoni Sarriegi (idazlea) • Edorta Jimenez (idazlea) • Aitziber Iglesias (editorea) • Gotzon Barandiaran (idazlea) • Mari Jose Ruiz (editorea) • Aritz Sound System (musika adiktoa) • Ferbu Izquierdo (idazlea, musikaria) • Iratxe Etxe-beste (idazlea) • Juanma Sarasola (kazetaria) • Mikel Urkola (EHUko irakaslea) • Laura Mintegi (idazlea, EHUko irakaslea) • Maisha MC (rap abeslaria, musikaria) • Iturriaga (bertsolaria) • Gari Berasaluze (idazlea) • Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegil' (idazlea) • Igor Elortza (bertsolaria) • Estitxu Fernandez (kazetaria) • Aitor Sarriegi (bertsolaria) • Iratxe Retolaza (EHUko irakaslea) • Xabi Borda (idazlea) • Patxi Gaztelumendi (blogaria) • Beñat Zarrabeitia (kazetaria)...

...ETA HAMAIIA LAGUN GEHI.



Wabi  
bozkabu  
inziatiba  
KULTURAREN ERAGILE